PROGRAMA
EUSKERA

# APIRILA MAIATZA EKAINA 2022



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

gizartea eta kultura
garaikidea

Bilbao



Julián Pacomio. *Apocalipsis entre amigos o el día simplemente*

**MAI. 26** (ostg.)

# Societat Doctor Alonso

## *Hammamturgia*

Societat Doctor Alonsok, Tomas Aragayk (antzerki-zuzendaria eta antzerkigilea) eta Sofia Asenciok (dantzaria eta koreografoa) zuzendutako konpainia eszenikoak, *Hammamturgia* aurkeztuko du, bere azken proiektu eszenikoa, "hammamturgia"ri buruz hausnartzen duena, dramaturgiaren beste alderdi gisa ulertuta.

Egindako ikerketetan, konpainiak "kode irekia" nozioarekin lan egin du beti. «Praktikaren bidez kontzeptualki mugatzen diren barne-jarraibide edo -arau batzuekin lan egiten dugu, eta garapenean mugako espazio gisa hartzen da publikoa: harrera irekia eta iluna izango da aldi berean, publikoa ziurgabetasunez egongo da tarte batez, kode horrek nolabait enkriptatzen baitu obraren ulermena», hausnartu du Societat Alonsok.

Ildo horretan, proiektuan ikerketa-parametro batzuk ezartzen dira barne-kode berri bat sortzeko. «Kode hori "hammamturgia" eta "giro" ideien ingurukoa da, eta aldagai aski izan beharko ditu ikusleek ulertu ahal izateko eta horiek irudimenerako lekua utzi beharko dute», azaldu du konpainiak.

**SOCIETAT DOCTOR ALONSO**, Tomás Aragayk eta Sofía Asenciok zuzendutako, lengoaia eszeniko nahastezina eraiki du. Ikuskizunek tentsio-egoerak dituzte, arau dramaturgikoak berrasmatzeko eta aurrez ezarritako eskemak umore adimentsu eta freskoaren dosi handi batekin hausteko askatasunez sortutakoak.



*Hammamturgia*

**Maiatzak 26, osteguna**

19:00
Kubo Baltza
12€ / 8,50€ Az Txartelarekin.
Tarifen inguruko informazioa webean

**Eskola-ikusleentzako entsegu orokorra**

11:00